

OSASUNAREN ALORREAN ARRAZAKERIA- ETA XENOFOBIA-ARAZOAK ETA BESTELAKO INTOLERANTZIA-MODUAK ANTZEMATEKO SENTSIBILIZAZIO PROIEKTUA DA ENPLEGU eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren eta Emigrazio Zuzendaritza Nagusiak bultzatutako proiektua, Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Espainiako Behatokiaren (Oberaxe) bitartez eta Carlos III Osasun Institutuaren Osasun Eskola Nazionalarekin lankidetzan.

Asilo, Migrazio eta Integrazio Funttsaren finantzaketarekin, besteak beste.

## Arazo arrazista, xenofobo eta intoleranteek ondorioak dituzte

Gorrito-arazo/delituaren ondorio fisiko eta psikologikoak biktimengan gero daitezke bizitza osoan zehar.

Horien efektuak familia eta komunitatera hedatzen dira.

Arazo bakar bat nahikoa da biktimari, bere familiari eta bere komunitateari sufrimendua eragiteko.

### Gehiago jakiteko

Observatorio Español del Racismo y la Xenofobia	Correo electrónico: <a href="mailto:oberaxe@meys.es">oberaxe@meys.es</a> <a href="http://explotacion.mtin.gob.es/oberaxe">http://explotacion.mtin.gob.es/oberaxe</a>
Consejo de víctimas de delitos de odio	Teléfono: 91 528 51 04 Correo electrónico: <a href="mailto:covidod@gmail.com">covidod@gmail.com</a>
Servicio de asistencia de víctimas de discriminación	Teléfono gratuito: 900 203 041 Correo electrónico: <a href="mailto:info@asistenciavictimasdiscriminacion.org">info@asistenciavictimasdiscriminacion.org</a> <a href="http://www.asistenciavictimasdiscriminacion.org">www.asistenciavictimasdiscriminacion.org</a>
Oficinas de asistencia a las víctimas de delitos violentos y contra libertad sexual	<a href="http://www.mjusticia.gob.es/cs/Satellite/Portal/es/servicios-ciudadano/oficinas-asistencia-victimas">http://www.mjusticia.gob.es/cs/Satellite/Portal/es/servicios-ciudadano/oficinas-asistencia-victimas</a>
Movimiento contra la Intolerancia	Teléfono: 91 530 71 99 Correo electrónico: <a href="mailto:solidaridadmci@gmail.com">solidaridadmci@gmail.com</a>
Ministerio del Interior	<a href="http://www.interior.gob.es/web/servicios-al-ciudadano/delitos-de-odio">http://www.interior.gob.es/web/servicios-al-ciudadano/delitos-de-odio</a>

### Gorrito-delituak salatzeko

Guardia Civil	Policía Nacional
<b>900 100 062</b>	<b>900 100 091</b>



# Osasunaren alorrean arrazakeria, xenofobia eta bestelako intolerantzia-moduak HAUTEMATEA ETA PREBENITZEA



Helburua da osasunaren arloko profesionalak sentsibilizatzea eta trebatzea, arrazakeriarekin, xenofobiarekin eta bestelako intolerantzia-moduekin lotutako gorrito-delitu eta -arazoaren biktimak antzeman eta lagundu ditzaten.

# Zergatik hitz egiten dugu arrazakeriaz, xenofobiaz eta intolerantziaz?

**Arrazakeriak** mundua “arrazatan” banatzen du eta zenbait talde etniko beste talde etniko batzuen azpikoak direla dio.

**Xenofobiak** dakar jatorri nazional desberdina duten pertsonetako eta beren kultura eta balioetako etsaitasuna.

**Intolerantzia** da pertsonetako eta beren duintasun eta eskubideetako bazterte-jarrera edo mespretxua, pertsona horien ezaugarri edo iritzi desberdinen ondorioz.

**Arraza bakar bat dago, giza arraza.**

**Ez gara arrazista jaiotzen, baina arrazista izaten ikasten dugu.**

**Jarrera arrazista, xenofobo eta intoleranteek pertsonen duintasuna kaltetzen dute.**

# Zer dira gorroto-arazoa eta gorroto-delitua?

Europako erakundeen arabera, **gorroto-delitua (Hate Crime)** da: edozein arau-hauste penal, barne hartuta pertsonen eta jabetzaren aurkako arau-hausteak, baldin eta arau-haustearen biktima, tokia edo helburua hautatu badira “arrazan”, jatorri nazional edo etnikoan, hizkuntzan, kolorean, erlijioan, adinean, minusbalotasun fisiko edo psikikoan, orientazio sexualean edo

antzeko faktoretan, errealak nahiz ustezkoak izan, oinarritutako talde batekin konexio-, erlazio-, afiliazio-, sostengu- edo kideztza-harremana, errealak nahiz ustezkoak, izatearen ondorioz. **Gorroto-arazoa** da biktimak edo beste edozein pertsona batek arrazista, xenofobo edo bestelako intolerantzia-modu gisa hautematen duena, delitua ez bada ere.

# Zer dira gorroto-mezuak eta gorroto-diskurtsoa?

Gorroto-arazoak edo delituak egiten dituztenek **mezu** bat bidaltzen diote beren biktimen talde osoari. Mezu horiek antzeman daitezke erasotzaileen sinbologiari esker, izan ahoz, nahiz grafiti, tatuaje edo motibazioa argi uzten duten bestelako ikurren bidez.

**Gorrotoaren diskurtsoak (Hate Speech)** barne hartzen ditu arraza-gorrotoa, xenofobia, antisemitismoa eta intolerantzian oinarritutako bestelako gorroto-moduak hedatu, bultzatu, sustatu edo justifikatzen dituzten adierazpen-modu guztiak.

# Nola antzeman pertsona bat gorroto arrazista, xenofobo edo bestelako intolerantzia-modu batekin lotutako arazo baten biktima izan dela?

Hona hemen zenbait oinarritzko adierazle:

<b>Biktima zegoen tokian bere taldeko beste kideen aurka delituak egin izan dira lehenago.</b>	<b>Erasoa neurritz kanpokoak da eta bat-batean edo ustekabean gerta daiteke.</b>	<b>Nortasun-desberdintasunak daude erasotzailearen eta biktimaren artean.</b>
<b>Erasotzaileen gorroto- edo irain-adierazpenak, estetika eta tatuajeak.</b>	<b>Erasoaren zonaldean gorrotoa sustatzen duten ikurrak eta grafitiak daude.</b>	<b>Biktima gorroto-taldeen “helburu” den talde bateko kide da.</b>
<b>Erasotzaileak (edo erasotzaileek) eraso aldarrikatu du(te), edo erasotzaileen aktibismoa agerikoa da zonaldean.</b>	<b>Biktimak eta/edo lekukoek gorroto-arazo gisa hauteman dute.</b>	
<b>Ez dago motibazio ekonomikorik edo bestelako motibaziorik.</b>		

# Zer egin dezakete OSASUN-ZENTROETAKO LANGILEEK BIKTIMEI laguntza emateko?



Lasaitasuna eta begirunea erakutsi biktima eta lekukoetako.



Ez egin ez ikusiarena arazoarekin eta erregistratu gertatu dena lesio-partean, historia klinikoan eta antzeko dokumentu egokietan.



Lagundu auzitegi-medikuei, epaileei eta fiskalei gorroto-delitua zigorrik gabe gera ez dadin.



Eman abisua zentroko gizarte-langileari biktimari laguntza eman diezaion beharrezkoa balitz (gorroto-delituen biktimei arreta emateko zerbitzu publiko edo GKE batekin harremanetan jartzea).



Jakinarazi gertakaria segurtasun-indarrei (polizia edo guardia zibila), bereziki erasoan armak erabili badira.



Azaldu argitasunez biktimari, baina biktima izutu gabe, zein izan den erasoaren arazoia: gorrotoa.



Aztertu biktimak izan ditzakeen kalte psikologikoak eta horien eragina familian.



Eman aholkua biktimari salaketa jartzeko eta laguntza bilatzeko lehenengo urratsen inguruan (gai hauetan espezializatzen diren GKEak oso lagungarriak izaten dira beti).

**Laguntza egoki batek sufritutako traumaren ondorioak hobetzen lagun dezake.**